

EGK-k eta Bilboko Udalak #GazteokBizikidetzan ekitaldia ospatu dute

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bilboko Udalak #GazteokBizikidetzan ekitaldia antolatu dute Nazioarteko Bakearen eguna dela eta
- Ekintzari hasiera eman dio asiloaren gaia lantzen duen ‘Tras la frontera’ antzezlanak; ostean bizikidetzaz lantzeko ekintza parte-hartzailean egin da

Bilbon, 2017ko irailaren 21ean. 20 gazte baino gehiagok parte hartu dute gaur Arriaga plazan Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) eta Bilboko udalaren eskutik aurrera eraman den ekitaldian. Maialen Olabe, EGK-ko presidentea, Nazioarteko Bakearen egunak “Euskadin etorkizunean bizikidetzaz errealitate bilakatzeko egin beharreko aldaketaz gogoeta bat egiteko aukera ematen digula” azpimarratu du.

Ekitaldira agertu da, besteak beste, Oihane Agirregotia, Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Saileko Zinegotzi Ordezkaria. Ondoren, Olabek, balioan jarri du EGK-k bakearekin duen konpromisoa, hau “indarkeria eza baino zerbait gehiago dela ulertuz, hau da, justizia soziala eta adiskidetzaz kultura bat sustatzen duena, pertsona guztien eskubiden errespetutik pasatuz”.

Ekitaldia Plataforma Tirante kolektibo artistikoak CEAR-Euskadiren parte-hartzearekin sortutako “Tras la frontera” antzezlanarekin hasi da. Antzezlanak dantza, musika eta antzerkia bateratuz, egungo asilo egoerara hurbiltzen du. “Ante la infranqueable frontera se dan cita cientos de refugiados extenuados y agolpados en busca de un pasaje. ¿Quién entrará?”. Era honetara, ikusleak ikuskizunaren parte bilakatu dira eta antzezlan iragana, oraina eta etorkizuna lotzen dituen abesti baten bitartez bukatzen da.

Bizikidetzarekin konpromisoa irudikatuz

Ondoren burututako dinamika parte-hartzailean gazteek bizikidetzarekiko orainean duten konpromisoa islatu dute horma-irudi batean plastikoki. Adierazpen artistiko hauek Euskadin bizikidetzarekin harremanetan daudenen interesak, kezkak eta erronkak islatzen dituzte. Bukatzeko parte-hartzaile bakoitzak “desiren putzuan” bizikidetzarekin harremanetan dagoen desira bat ezarri du.

Hurrengo ekintzetan erabili, aztertu eta txarrerako nahiz onerako aldaketarik egon den ala ez baloratzeko parte-hartzaileen desira hauek gordetzea da helburua.